



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko urtarrilaren 9a

3. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Abenduaren 28ko 20/2011 Foru Legea, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Akats zuzenketa (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko zein den “Dirulaguntza Ascuna elkarteari” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Ekoizpen Ekologikoaren Kontseilu Arau-emailearentzako dirulaguntza” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Hitzarmena Amur-ekin” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Krisiaren aurkako neurriak, hobetzeko inbertsioen azkartzea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “UCAN Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiba: integrazioa sustatzea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Arga ibaiaren ingurunea hobetzea. Ibai parke bisual-ekologikoa Berbintzanan” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Gizarteratze zentroentzako dirulaguntzak, inbertsioak direla eta” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Ilundáin-Lan Sarreran Fundazioa” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

- Galdera, jakiteko zein den “Nafarroako jatorrizko izendapena duten mahastizaintza eta ardogintza-sektoreko kooperatibak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Krisiaren aurkako neurriak. Enplegu zentro berezientzako dirulaguntzak, lanpostuei eusteko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Krisiaren aurkako neurriak. Enplegu zentro berezientzako dirulaguntzak, inbertsioak direla eta” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Hitzarmena UPTArekin, lan autonomoa sustatu eta laguntzeko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Hitzarmena ACEMNArekin, azterlan bat egin dezan Kontratuei buruzko Foru Legearen 9. artikulua aldatzeak administrazioetan eta enpresa publikoetan izanen lukeen eraginari buruz” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Mendabiako industrialdeko jarduketak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Dirulaguntza Idima Fundazioari, patenteen garapena sustatzeko eta haien eza-gutzari eusteko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Hitzarmena Nafarroako Merkataritza Ganberarekin, enpleguko programa berariazkoetarako” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Hitzarmena Agroturana Elkartearekin” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Consebroren elikagaien segurtasunari buruzko proiektua” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Fundagorentzako dirulaguntza” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Elikagai-segurtasun eta -teknologiaren Zentro Nazionalarentzako dirulaguntza, inbertsioetarako” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Makineriarako eta produkzio-bideetarako dirulaguntzak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Dirulaguntza Behe Errioxa jatorrizko deiturarentzat, Nafarroako lurraldean enoturismoko plan estrategikoa ezartzeko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Prestakuntza jarduerak langetuen enplegarritasunerako” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, jakiteko zein den “Industria azpiegiturako inbertsioak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Abenduaren 28ko 20/2011 Foru Legea, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

AKATS ZUZENKETA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 28ko 20/2011 Foru Legean akats bat atzeman da. Legea 2011ko abenduaren 30eko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, ondoko zuzenketa hau egin da aipatu foru legean:

Hirugarren artikulua (13. orrialdea, ezkerreko zutabea). Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea. Honako hau dio: “2012ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako, eta deusetan galarazi gabe Bat, Zortzi, **Hamaika**,

Hamahiru, Hamalau, Hemeretzi, Hogeita bi, Hogeita hiru, Hogeita bost, Hogeita sei, Hogeita zazpi eta Hogeita zortzi...” Aldiz, hau esan behar du: “2012ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako, eta deusetan galarazi gabe Bat, Zortzi, **Hamabi, Hamalau, Hamabost, Hogeita, Hogeita hiru, Hogeita lau, Hogeita sei, Hogeita zazpi, Hogeita zortzi eta Hogeita bederatz...**”

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zein den “Dirulaguntza Ascuna elkarteari” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Dirulaguntza Ascuna elkarteari” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Diru-laguntza Ascuna elkarteari" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetze mailari buruz (PES-83). Hona Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendari nagusiaren abuztuaren 25eko 837/2011 Ebazpenaren bidez onetsi zen Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak Ascuna-Nafarroako Untxizainen Elkarteari emandako dirulaguntza, haren xede sozialari dagozkion jarduerak egin ditzan 2011n; hartara, 30.000 euroko gastu bat baimendu zen, 71310 711001 4819 412202 "Diru-laguntza Ascuna elkarteari" kontusailaren kargura.

Ituna 2011ko abuztuaren 31n sinatu zen, eta ordainketa egingen da diru-laguntza horren xede diren gastuak aurkeztean, itunaren baldintzekin bat. Ascunak 2011ko azaroaren 1a baino lehen aurkeztu behar ditu ziurtagiriak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko azaroaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Ekoizpen Ekologikoaren Kontseilu Arau-emailearentzako dirulaguntza” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Ekoizpen Ekologikoaren Kontseilu Arau-emailearentzako dirulaguntza” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Ekoizpen Ekologikoaren Kontseilu Arau-emailearentzako diru-laguntza" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetze mailari buruz (PES-85). Hona Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Landa Garapeneko zuzendari nagusiaren maiatzaren 11ko 640/2011 Ebazpenaren bidez onetsi zen Nafarroako Gobernu Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren eta Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren Kontseiluaren (CPAEN-NNPEK) arteko hitzarmena, 15. urteurrenerako sustapen-planerako eta kontrol- eta on-line ziurtapen-prozesua digitalizatzeko dirulaguntza

arautzen duena, eta 70.000,00 euroko dirulaguntza eman zitzaion Nafarroako Nekazaritza Produktio Ekologikoaren Kontseiluari (CPAEN-NNPEK).

Aipatu ebazpenari jarraikiz, dirulaguntza aldi bakar batean ordainduko da, aldez aurretik –abenduaren 1a baino lehen– aurkezten badira beharrezkoak diren gastuei eta ordainketei buruzko ziurtagiriak, diruz laguntzeko den zenbatekoagatik. Horretaz gain, aurkeztu beharko dira dirulaguntzaren xedea bete izanari buruzko ziurtagiriak, bai eta beharrezkotzat jotzen den gainerako dokumentazioa ere.

2011ko ekainaren 16an, Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren Kontseiluak aurkeztu zituen zegozkien gastuei eta ordainketei buruzko ziurtagiriak, bai eta beharrezkoa zen gainerako dokumentazioa ere.

2011ko ekainaren 29an, laguntza kudeatzen duen organoak, Nekazaritzako Produktio Elikagai Industrien eta Nekazaritzako Ustiatze Zerbizuetak, emandako dirulaguntza ordaintzeko ebazpena proposatu zuen.

Informazio horretatik ondoriozta daitekeenez, 2011ko ekainaren 30ean % 100ean beteta zegoen kontusail horretako zenbatekoa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Hitzarmena Amur-ekin” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Hitzarmena Amur-ekin” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Hitzarmena Amur-ekin" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetze mailari buruz (PES-86). Hona Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Landa Garapenerako zuzendari nagusiaren apirilaren 1eko 457/2011 Ebazpenaren bidez, Amur-i 75.000 euro ematea erabaki zen, eta zegoen hitzarmen arau-ematea onetsi zen, zeina 2011ko apirilaren 15ean sinatu baitzen. Aurreikusitakoaren arabera, diru-laguntza bi alditan ordainduko da, entitateak eginiko jarduerengatiko txoste-

nak eta ordainagiriak aurkeztu eta Administrazioak ontzat ematen dituenean.

2011ko abuztuaren 31rako, emandako zenbatekoaren ehuneko 60ra arte. 2011ko abenduaren 31rako, emandako zenbatekoa osatzeko falta dena.

2011ko abuztuaren 17an, Amur-ek aurkeztu zuen ordura arte eginiko lanen oroitidazki teknikoak: zenbait emakumerentzat eginiko aholkularitza teknikoko txostenak, barne-prestakuntzako ikastaroak eta tailerrak, erabilitako material didaktikoak eta prentsan jarritako iragarkiak, webgunea mantentzeko eta eguneratzeko lanak eta abar. Dokumentazio hori dagozkion gastu-ziurtagiriez lagunduta aurkeztu da.

Gaur egun, Landa Aniztasunerako eta Garapenerako Zerbitzua, hori baita hitzarmena kudeatzeko ardura duen unitatea, lehenbiziko epea ordaindu aurretiko kontrola egiten ari da. Ordainketa ahalik eta lasterren egiten da.

Azkenik, aurreikuspenen arabera, hitzarmena bere osotasunean beteko da urte amaiera bitartean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Krisiaren aurkako neurriak, hobetzeko inbertsioen azkartzea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Krisiaren aurkako neurriak, hobetzeko inbertsioen azkartzea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Krisiaren aurkako neurriak, hobetzeko inbertsioen

azkartzea” izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetze mailari buruz (PES-87). Hona Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

2011ko aurrekontuaren kargura emandako dirulaguntzen, guztira, 1.734.148,77 euro egin dute; zenbateko hori da kontusaileko hasierako aurrekontuaren –1.737.000 euro– % 99,95.

Konprometitutako zenbateko horretatik, 1.626.467,67 euro ordaindu direla ageri da, onuradunek beharrezkoak ziren ziurtagiriak aurkeztu ondoren. Zenbateko horrek egiten du kontusaileko hasierako zuzkiduraren % 93,74.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Galdera, jakiteko zein den “UCAN Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiba: integrazioa sustatzea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “UCAN Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiba: integrazioa sustatzea” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “UCAN Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiba: integrazioa sustatzea” izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetze mailari buruz (PES-088). Hona Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Landa Garapenerako zuzendari nagusiaren 623/2011 Ebazpenaren bidez 2011rako emandako

dirulaguntza 100.000 eurokoa da, eta horixe da kontusailean eskuragarri dagoen zenbatekoa.

2011ko ekainaren 30ean, UCANek aurkeztu ditu 44.749,32 euro egiten dituzten gastuei buruzko ziurtagiriak, eta zenbateko hori ordaindu zaio kasuko ebazpenaren bidez.

Ondorioz, ekainaren 30eko betetze maila % 100ekoa da baimendu eta xedatutako gastuari dagokionez, eta % 45ekoa ordaindutako gastuari dagokionez.

Bigarren ordainketa abenduan eginen da, 100.000 euro bete arte falta den kopuruagatik, betiere UCANek beharrezkoak diren ziurtagiriak aurkezten baditu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Arga ibaiaren ingurunea hobetzea. Ibai parke bisual-ekologikoa Berbintzanan” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Arga ibaiaren ingurunea hobetzea. Ibai parke bisual-ekologikoa Berbintzanan” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Arga ibaiaren ingurua hobetzea. Ibai parke bisual-ekologikoa Berbintzanan" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz (PES-089). Hona Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Aipatu kontusaila 2011ko aurrekontuan jasota dago eta 45.000 euro ditu.

2011n, Berbintzanako Udalak aurrekontuan agertzen zen dirulaguntza eman zekion eskatu zuen, otsailaren 8ko 2011/60434 eskabidearen bidez. Departamentuak otsailaren 14ko jakinaraz-

pen baten bidez erantzun zion, eta bertan hauxe esaten zen: "baloratutako oroitidazkian, oinarrian, teknologia energetikoko ekipamendua erostea eta hiri-plaza batean instalatzea agertzen da, eta horrek ez du loturarik, ez zuzenean ez zeharka, ez ibai parke batekin, ez Arga ibaiaren eta hari loturiko ekosistemen ingurumen- nahiz paisaia-hobekuntzarekin, eta, horrenbestez, proposaturiko jarduketak ez datoz bat diru-laguntzaren xedearekin". Azkenik, Udala premiatzen zen aurkez zezan ibai parkea egiteko proiektu bat, ibai inguruaren ingurumen-hobekuntza ekarriko zuena (ezponda naturalak lehengoratzea, ibaiertzeko espezie autoktonoak landatzea eta abar) eta ibai inguruarekin bateragarria den erabilera publikoko ekipamenduren bat izan ahalko lukeena (kartelak, bankuak...).

2011ko abuztuaren 30ean, Udalak aurkeztu zuen otsailean emandako oharrei jarraitzen zien jarduketaren oroitidazki bat, eta Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren irailaren 2ko 1370/2011 Ebazpenaren bidez onetsi zen Nafarroako Gobernuaren eta Udalaren arteko hitzarmena, Arga ibaiaren ingurua hobetzeko. Halaber, gehieze ere 45.000 euroko dirulaguntza eman zitzaion udalari, hura baitzen lanak egin behar zituena aurkeztutako oroitidazkiari jarraikiz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Gizarteratze zentroentzako dirulaguntzak, inbertsioak direla eta” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Gizarteratze zentroentzako dirulaguntzak, inbertsioak direla eta” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Gizarteratze zentroentzako dirulaguntzak, inbertsioak

direla-eta" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz (PES-91). Hona Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

"Gizarteratze zentroentzako dirulaguntzak, inbertsioak direla-eta" izeneko 881001 84100 7819 241103 kontusailak 300.000 euro ditu eta, 2011ko irailaren 1eko betetze mailari dagokionez, gastu baimenarena 299.603 eurokoa da, eta betebeharren aitorpenari buruzkoa, 50.603 eurokoa.

Hala ere, gastuaren ehuneko 100 inguru betetzea aurreikusten da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Ilundáin-Lan Sarreran Fundazioa” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Ilundáin-Lan Sarreran Fundazioa” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Ilundáin-Lan

Sarreran Fundazioa” izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz (PES-93). Hona Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

“Ilundáin-Lan Sarreran Fundazioa” izeneko 881001 84100 48199 242202 kontusailak 150.000 euro ditu, eta 2011ko irailaren 1ean % 50eko betetze maila du. Zehazki, 75.000 euro ordaindu dira, entitateak data horretara arte aurkeztutako ziurtagirien eta eginiko aurrerapenen arabera.

Nolanahi ere, gastuaren ehuneko 100 betetzea aurreikusten da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Nafarroako jatorrizko izendapena duten mahastizaintza eta ardogintza-sektoreko kooperatibak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Nafarroako jatorrizko izendapena duten mahastizaintza eta ardogintza-sektoreko kooperatibak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Nafarroako jatorrizko izendapena duten mahastizaintza eta ardogintza-sektoreko kooperatibak” izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz (PES-94). Hona Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

La Consejera de Desarrollo Rural, Industria, Empleo y Medio Ambiente, en relación con la pre-

gunta para su contestación por escrito formulada por el Parlamentario Foral Ilmo. Sr. D. Juan José Lizarbe Baztán, adscrito al Grupo Parlamentario "Socialistas de Navarra," sobre el grado, nivel y cuantía ejecutada a 30 de junio de 2011 de la línea presupuestaria Cooperativas sector vitivinícola D.O. Navarra (PES-00094), tiene el honor de remitirle la siguiente contestación:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren ekainaren 7ko 222/2011 Foru Aginduaren bidez ezarri ziren kalitateko ardoaren merkaturatzearen arloan laguntzak emateko arau erregulatzailak, elkarteek garatzen dituzten sustapen eta hobekuntza ekintzak bultzatze aldera, eta 2011ko deialdia onetsi zen.

Oraindik ez da inolako diru-laguntzarik izapide-tu. Nafarroako Gobernuak aurrekontua doitu beharra dauka une honetan, eta kontusail hau konprometitu gabe dago oraindik ere; hortaz, UPNk eta PSNk osatzen duten koalizio-gobernuak aurrekontu-doiketei buruz hartutako erabakian oinarrituta, konpromiso gehiago ez hartzeko erabaki zaila hartu da, eta, horrenbestez, deialdia bertan behera uztea proposatu da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den "Krisiaren aurkako neurriak. Enplegu zentro berezientzako dirulaguntzak, lanpostuei eusteko" izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den "Krisiaren aurkako neurriak. Enplegu zentro berezientzako dirulaguntzak, lanpostuei eusteko" izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Krisiaren aurkako neurriak. Enplegu zentro berezientza-

ko diru-laguntzak, lanpostuei eusteko" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetze mailari buruz (PES-95). Hona Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

"Krisiaren aurkako neurriak. Enplegu zentro berezientzako diru-laguntzak, lanpostuei eusteko" izeneko 881001 84100 4709 241112 kontusailak 1.000.000 euro ditu, eta 2011ko irailaren 1ean, haren betetze-maila ehuneko 50 baino handiagoa da. Zehazki, 545.329 euro baliatu dira, enplegu zentro bereziek egun horretara arte aurkeztutako eskariari jarraikiz.

Hala ere, gastuaren ehuneko 100 betetzea aurreikusten da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Krisiaren aurkako neurriak. Enplegu zentro berezientzako dirulaguntzak, inbertsioak direla eta” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Krisiaren aurkako neurriak. Enplegu zentro berezientzako dirulaguntzak, inbertsioak direla eta” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Krisiaren aurkako neurriak. Enplegu zentro berezientzako dirulaguntzak, inbertsioak direla eta" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetze

mailari buruz (PES-96). Hona Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Lehenengo eta behin adierazi beharra dago 2011ko irailaren 1eko betetze-mailari buruzko datuak ematen ari garela, aurrekontu-betetzearen ikuspegi gaurkotuago bat ematearren.

"Krisiaren aurkako neurriak. Enplegu zentro berezientzako dirulaguntzak, lanpostuak sortzeko eta horiei eusteko" izeneko 881001 84100 7709 241104 kontusailak 500.000 euro ditu, eta 2011ko irailaren 1ean haren betetze-maila ia ehuneko 50ekoa da. Zehazki, 238.458 euro baliatu dira, enplegu zentro bereziek egun horretara arte aurkeztutako eskariari jarraikiz.

Hala ere, gastuaren ehuneko 100 betetzea aurreikusten da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Hitzarmena UPTAekin, lan autonomia sustatu eta laguntzeko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Hitzarmena UPTAekin, lan autonomia sustatu eta laguntzeko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Hitzarmena UPTArekin, lan autonomoa sustatu eta laguntzeko" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz (PES-97). Hona Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

"Hitzarmena UPTArekin, lan autonomoa sustatu eta laguntzeko" izeneko 881001 84100 4819 241115 kontusailak 60.000 euro ditu, eta 2011ko

irailaren 1ean haren betetze-maila ehuneko 50ekoa da. Zehazki, 30.000 euro ordaindu dira, entitateak orain arte aurkeztutako ziurtagirien eta eginiko aurrerapenen arabera.

Hala ere, gastuaren ehuneko 100 betetzea aurreikusten da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Hitzarmena ACEMNArekin, azterlan bat egin dezan Kontratuei buruzko Foru Legearen 9. artikulua aldatzeak administrazioetan eta enpresa publikoetan izanen lukeen eraginari buruz” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Hitzarmena ACEMNArekin, azterlan bat egin dezan Kontratuei buruzko Foru Legearen 9. artikulua aldatzeak administrazioetan eta enpresa publikoetan izanen lukeen eraginari buruz” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Hitzarmena ACEMNArekin, azterlan bat egin dezan Kontratuei buruzko Foru Legearen 9. artikulua

aldatzeak administrazioetan izanen lukeen eraginari buruz." izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz (PES-98). Hona Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

"Hitzarmena ACEMNArekin, azterlan bat egin dezan Kontratuei buruzko Foru Legearen 9. artikulua aldatzeak administrazioetan izanen lukeen eraginari buruz" izeneko 881001 84100 4819 241100 kontusailak 60.000 euro ditu eta 2011ko irailaren 1ean, haren betetze-maila ehuneko 50ekoa da. Zehazki, 30.000 euro ordaindu dira, entitateak orain arte aurkeztutako ziurtagirien eta eginiko aurrerapenen arabera.

Hala ere, gastuaren ehuneko 100 inguru betetzea aurreikusten da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Mendabiako industrialdeko jarduketak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Mendabiako industrialdeko jarduketak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako “Mendabiako industrialdeko jarduketak” izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetzearen gradu, maila eta zenbatekoari buruz (PES-99). Hona Nafarroako Gobernu-

ko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

2011rako gastu-aurrekontuan “Mendabiako industrialdeko jarduketak” izeneko kontusail bat dago –810001.81140.7609.458102 kontusaila–, 200.000,00 euroko hasierako kreditua duena. Enpresa zuzendari nagusiaren martxoaren 16ko 571DGE/2011 Ebazpenaren bidez, 200.000,00 euroko diru-laguntza eman eta ordaindu zitzaion, kasuko ziurtagiriak aurkeztu ondotik, Mendabiako Udalarari (IFZ P3116500D), etorkizuneko industrialdea handitzeko beharrezkoak diren lursailak erosteko.

Alegia, Mendabiako industrialderako 200.000 euroak ordainduta daude, eta, hortaz, betetze-maila % 100ekoa da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Dirulaguntza Idima Fundazioari, patenteen garapena sustatzeko eta haien ezagutzari eusteko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Dirulaguntza Idima Fundazioari, patenteen garapena sustatzeko eta haien ezagutzari eusteko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Diru-laguntza FIDMA Fundazioari, patenteen garapena sustatzeko eta haien ezagutzari eusteko" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetze mailari buruz (8-11/PES-00100). Hona Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

2011ko maiatzaren 11n jaso zen Berrikuntzarako eta Ezagutzaren Transferentziarako Zerbitzuan FIDMAren eskaera, aipatu diru-laguntza emateko. Eskaerarekin batera aurkeztu zituzten oroitidazkia eta 200.000 euroko aurrekontu xehakatu.

Aipatu zerbitzuak ebazpen-proposamena prestatu zuen 2011ko ekainaren 29rako, diru-laguntza ematekoa. Horretarako beharrezkoa izan zen aurrekontua gehiago xehakatzeko eskaeria egitea.

Eskari hori FIDMAri helarazi zitzaion, eta behin xehakapen hori jasota, beste proposamen bat prestatu da, 2011ko irailaren amaierarako.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den "Hitzarmena Nafarroako Merkataritza Ganberarekin, enpleguko programa berariazkoetarako" izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den "Hitzarmena Nafarroako Merkataritza Ganberarekin, enpleguko programa berariazkoetarako" izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Hitzarmena Nafarroako Merkataritza Ganberarekin, enpleguko programa berariazkoetarako" izeneko kontusailaren 2011ko

ekainaren 30eko betetze mailari buruz (8-11/PES-00101). Hona Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

"Hitzarmena Nafarroako Merkataritza Ganberarekin, enpleguko programa berariazkoetarako" izeneko 881001 84100 4459 241300 kontusailak 170.000 euro ditu eta 2011ko irailaren 1ean, haren betetze-maila ehuneko 25ekoa da. Zehazki, 42.500 euro bete dira, lehenbiziko ordainketari dagozkionak, eta entitateak betetze horri dagozkion ziurtagiriak aurkeztu zain gaude, gainerako aurrerapenak ordaintzeko.

Hala ere, gastuaren ia ehuneko 100 betetzea aurreikusten da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Hitzarmena Agroturana Elkartearekin” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Hitzarmena Agroturana Elkartearekin” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Agroturana" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetze mailari buruz (PES-00129). Hona Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Landa Garapenerako zuzendari nagusiaren maiatzaren 11ko 641/2011 Ebazpenaren bidez,

40.000 euro eman zitzaizkion Agroturanari, eta zegokion hitzarmen arautzailea onetsi eta 2011ko maiatzaren 27an sinatu zen. Aurreikusitakoaren arabera, diru-laguntza bi alditan ordainduko da, entitateak eginiko jarduerengatik txostenak eta ordainagiriak aurkeztu eta Administrazioak ontzat ematen dituenean.

2011ko irailaren 30erako, emandako zenbatekoaren ehuneko 60ra arte.

2011ko abenduaren 31rako, erabakitako zenbatekoa osatzeko falta dena.

Hitzarmenaren xede den lana betetzeari buruzko dokumentazioa jaso ondoren, hari buruzko kontrola gauzatuko da, eta, bidezkoa bada, ordainketa egingen da.

Aurreikuspenen arabera, hitzarmena urte amaiera bitartean beteko da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Consebroren elikagaien segurtasunari buruzko proiektua” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Consebroren elikagaien segurtasunari buruzko proiektua” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "CONSEBROren elikagaien segurtasunari buruzko proiektua" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetze mailari buruz (8-11/PES-00130). Hona Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Landa Garapenerako zuzendari nagusiaren abuztuaren 5eko 925/2011 Ebazpenaren bidez onetsi zen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren eta Nafarroako, Errioxako eta Aragoiko nekazaritzako elikagaien Industrien elkartearen (Consebro) arteko hitzarmena, arau-

tzen zuena sektore horretako industriak aholku emateko diru-laguntza ematea.

Ebazpen horren bidez 100.000,00 euro eman ziren, 2011ko aurrekontu orokorretako "CONSEBROren elikagaien segurtasunari buruzko proiektua" izeneko 721001-72220-7701-413100 kontusailaren kargura.

Aipatu ebazpenaren arabera, diru-laguntza bi ordainketatan gauzatuko da, prozedura honi jarraituz:

- Hitzarmena sinatu ondoren, lehen ordainketa egingen da, inbertsioak, gastuak eta ordainketak justifikatzen dituzten agiriak aurkeztu ondoren, hautagarria den zenbatekoagatik.

Bigarren ordainketa azarotik aurrera egingen da, kontusail osoa betetzeko falta den zenbatekoagatik. Hori guztia egingen da garatutako jardueren ondoriozko dokumentazioa, gastuak eta ordainketak justifikatzen dituena, aurkeztu ondoren, bai eta eska daitekeen dokumentazio guztia ere.

Laburbilduz, kontusailaren % 100 –100.000 euro– konprometituta dago, eta Consebrok beharrezkoak diren egiaztagiria aurkezten dituenean ordainduko da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Fundagrorentzako dirulaguntza” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Fundagrorentzako dirulaguntza” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Fundagrorentzako diru-laguntza" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetze mailari buruz (PES-131). Hona Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Landa Garapenerako zuzendari nagusiaren apirilaren 11ko 458/2011 Ebazpenaren bidez, 264.580 euro eman zitzaizkion Fundagrori, eta zegokion hitzarmen arautzailea onetsi eta 2011ko apirilaren 20an sinatu zen. Aurreikusitakoaren araber, diru-laguntza hiru alditan ordainduko da, entitateak eginiko jarduerengatik txostenak eta

ordainagiriak aurkeztu eta Administrazioak ontzat ematen dituenean.

2011ko maiatzaren 31rako, emandako zenbatekoaren ehuneko 30era arte.

2011ko irailaren 30erako, emandako zenbatekoaren ehuneko 40ra arte.

2011ko abenduaren 31rako, emandako zenbatekoa osatzeko falta dena.

2011ko maiatzaren 31n, Fundagrok aurkeztu zituen urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean eginiko lanen txosten teknikoak, gastuei buruzko ziurtagiriekin batera.

Horrenbestez, Landa Garapenerako zuzendari nagusiaren uztailaren 29ko 900/2001 Ebazpenaren bidez, 78.107,05 euro ordaindu zaizkio, BEZa barne, Fundagro fundazioari, 2011ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean eginiko jarduerengatik lehen ordainketa partzial gisa. Beraz, gaur egun egiteke daude aurreikusitako bigarren eta hirugarren ordainketa partzialak, zeinak eginen baitira Fundagrok beharrezkoak diren ziurtagiriak aurkeztu ondoren.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko irailaren 29an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Elikagai-segurtasun eta -teknologiaren Zentro Nazionalarentzako dirulaguntza, inbertsioetarako” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Elikagai-segurtasun eta -teknologiaren Zentro Nazionalarentzako dirulaguntza, inbertsioetarako” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Elikagai-segurtasun eta -teknologiaren Zentro Nazionalarentzako dirulaguntza, inbertsioetarako" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetze mailari buruz (PES-00132). Hona Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Landa Garapenerako zuzendari nagusiaren ekainaren 3ko 731/2011 Ebazpenaren bidez onetsi zen Nafarroako Gobernu Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren eta Elikagai-segurtasun eta -teknologiaren Zentro Nazionalaren (CNTA-Laboratorio del Ebro) arteko hitzarmena, 2011n jarduerak egiteko dirulaguntza arautzen duena, eta Elikagai-segurtasun eta -teknologiaren Zentro Nazionalari (CNTA-Laboratorio del Ebro) 285.460,00 euroko dirulaguntza eman zitzaion, 2011ko aurrekontu orokorretako "Elikagai-segurtasun eta -teknologiaren Zentro Nazionalarentzako dirulaguntza, ikerketa eta garapen jarduerak eta beste batzuk egiteko" izeneko 721000-72210-4700-413100 kontusailaren kargura.

Aipatu ebazpenaren arabera, dirulaguntza bi ordainketatan gauzatuko da, prozedura honi jarraituz:

-Irailetik aurrera, lehen ordainketa egingen da, gastuak eta ordainketak justifikatzen dituzten agiriak aurkeztu ondoren, hautagarria den zenbatekoagatik.

-Irailetik aurrera, lehen ordainketa egingen da, eta kontusaileko 285.460,00 euroen eta eginiko lehen ordainketaren arteko aldea izanen da ordainduko den kopurua. Hori guztia egingen da garatutako jardueren ondoriozko dokumentazioa, gastuak eta ordainketak justifikatzen dituena, aurkeztu ondoren, bai eta eska daitekeen dokumentazio guztia ere.

Bigarren ordainketa azarotik aurrera egingen da eta kontusaileko 285.460,00 euroen eta eginiko lehen ordainketaren arteko aldea izanen da ordainduko den kopurua. Hori guztia egingen da garatutako jardueren ondoriozko dokumentazioa, gastuak eta ordainketak justifikatzen dituena, aurkeztu ondoren, bai eta eska daitekeen dokumentazio guztia ere.

Arestian emandako informaziotik ondoriozta daitekeenez, 2011ko ekainaren 30ean kontusail osoa konprometituta eta ordaintzeke dago, beharrezkoak diren egiaztagirak aurkeztu ondoren ordainduko baita.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Makineriarako eta produkzio-bideetarako dirulaguntzak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Makineriarako eta produkzio-bideetarako dirulaguntzak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Makineriarako eta produkzio-bideetarako diru-laguntzak" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetze mailari buruz (PES-133). Hona Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren apirilaren 20ko 160/2011 Foru Aginduaren bidez. Foru agindu honek aldatu egin zuen Neka-

zaritzako kooperatibei nekazaritzako makinerian inbertsioak egiteko laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri zituen maiatzaren 28ko 264/2008 Foru Agindua, eta 2011ko deialdia onetsi zen.

Laguntzak emateko 17 espediente izapidetu eta 700.476,00 euro konprometitu dira 2012ko aurrekontuen kargura.

2010eko deialdiari dagokionez, 2.132.805,14 euroko zenbatekoa dago konprometituta 2011ko aurrekontuen kargura.

2011ko irailaren 10ean, bi deialdi horien batura eginda, 2.304.336 euro daude konprometituta, gastu baimen gisa –kontusailaren % 85,59–, eta onuradunek beharrezkoak diren ziurtagiriak aurkeztu ondoren, 1.086.972,40 euro ordaindu dira; hau da, kontusailaren % 40,37. Kontuan hartu behar da espediente horiek 2011ko urriaren 30era arteko epea dutela inbertsioak justifikatzeko, eta onuradunek ziurtagiriak aurkeztu ahala egiten direla ordainketak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Dirulaguntza Behe Errioxa jatorrizko deiturarentzat, Nafarroako lurraldean enoturismoko plan estrategikoa ezartzeko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Dirulaguntza Behe Errioxa jatorrizko deiturarentzat, Nafarroako lurraldean enoturismoko plan estrategikoa ezartzeko” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Dirulaguntza Behe Errioxa jatorrizko deiturarentzat, Nafarroako lurraldean enoturismoko plan estrategikoa ezartzeko" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetze mailari buruz (PES-134). Hona Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuaren 2011ko abuztuaren 24ko Erabakiaren bidez, Landa Garapenerako zuzendari nagusiari baimena eman zitzaion 30.000 euroko diru-laguntza zuzena emateko Estellerriko Turismo Partzuergoari, 2011ko ekitaldian 2011-2013 urteetarako Behe Errioxa jatorrizko deituraren Nafarroako eremuan enoturismoa sus-

tatzeko Plan estrategikoaren barruan jasotako ekintzetako batzuk betetzeko.

Hurrengo urratsa izan zen Landa Garapenerako zuzendari nagusiak ebazpena sinatzea, honako xedeekin:

- 30.000,00 euroko gastua baimentzea "Dirulaguntza Behe Errioxa jatorrizko deiturarentzat, Nafarroako lurraldean enoturismoko plan estrategikoa ezartzeko-Ardoaren ibilbidea" izeneko 72300-722000-4459-412100 kontusailaren kargura.

- Diru-laguntza ematea Estellerriko Turismo Partzuergoari.

- Departamentuaren eta partzuergoaren arteko hitzarmena, diru-laguntza arautzen duena, onestea.

Landa Aniztasunerako eta Garapenerako Zerbitzuak, zeina baitzen fase hau kudeatzeko ardura zuen organoa, txostena eman zuen 2011ko abuztuaren 28an. Aurreikuspenen arabera, hitzarmena urrian sinatuko da.

Diru-laguntza 2011ko amaieran ordainduko da, Estellerriko Turismo Partzuergoak eginiko jardueri buruzko txostenak eta ordainagiriak aurkeztu eta Administrazioak ontzat ematen dituenean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Prestakuntza jarduerak langetuen enplegarritasunerako” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Prestakuntza jarduerak langetuen enplegarritasunerako” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Langabetuen enplegarritasunerako prestakuntza-jarduerak" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetze mailari

buruz (PES-135). Hona Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Kontusail horrek 2.600.000 euroko zenbateko baimendua du, eta laguntzak emateko administrazio-prozeduren ondoren, 2.520.000 euro erabili dira. Betebehar- eta ordainketa-aitorpena 1.149.000 eurokoa da. Urte amaierako aurreikuspenei dagokienez, egun betetzen ari den jarduera kontuan hartuta, % 96,92ko betetze-mailara iritsiko gara. Aldearen arrazoi nagusia da baremazioa egin eta laguntzaren zenbatekoa kalkulatu ondoren zuzendu eta murriztu egin direla aurkeztutako proiektuetako modulu finantzagari batzuen zenbatekoak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zein den “Industria azpiegiturako inbertsioak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du jakiteko zein den “Industria azpiegiturako inbertsioak” izeneko kontusailak 2011ko ekainaren 30ean duen exekuzioaren gradua, maila eta zenbatekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 12ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Industria azpiegiturako inbertsioak" izeneko kontusailaren 2011ko ekainaren 30eko betetze mailari buruz (8-11/PES-00136). Hona Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

2011rako gastuen aurrekontuan jasota dago "Industria azpiegiturako inbertsioak" izeneko 810001.81140.6015.458100 kontusaila, 365.000,00 euroko hasierako kredituarekin, zeina lortu baitzen hasieran jarritako 315.000 eurekin eta Socialistas de Navarra parlamentu-taldearen zuzenketa bat onestearen ondorioz jarri ziren beste 50.000 euroekin. Hauexek izan dira egindako lanak:

- Enpresako zuzendari nagusiaren maiatzaren 4ko 935/2011 Ebazpenaren bidez, Nasuinsari enkargatu zitzaion Tuterako Montes de Cierzo industrialdeko udalez gaindiko plan sektoriala eta lurzatiketak egitekoa aldatzeko proiektuak idaztea.

Horretarako, 18.972,40 euroko aurrekontua onetsi zen, BEZa barne, aipatu kontusailaren kargura. Enpresa eta Berrikuntzako zuzendari nagusiaren abuztuaren 24ko 1497/2011 Ebazpenaren bidez, konpromiso hori osoki ordaindu zen, bi proiektuak eta haiei zegokien ordainagiria aurkeztu ondoren.

- Enpresako zuzendari nagusiaren maiatzaren 4ko 934/2011 Ebazpenaren bidez, Nasuinsari eman zitzaion Izizko industrialdeko (Galoze) urbanizazioa amaitzeko proiektuak eta beharrezkoak ziren obrak egiteko enkargua. Horretarako, 63.429,63 euroko aurrekontua onetsi zen, BEZa barne, aipatu kontusailaren kargura.

- Enpresako zuzendari nagusiaren ekainaren 15eko 1223/2011 Ebazpenaren bidez, Nasuinsari eman zitzaion Vianako La Alberguería industrialdearen sustapenari, lagapenari eta mantentzeari buruzko egoera-txostena idazteko enkargua. Horretarako, 16.453,51 euroko aurrekontua onetsi zen, BEZa barne, aipatu kontusailaren kargura.

- Enpresako zuzendari nagusiaren ekainaren 15eko 1222/2011 Ebazpenaren bidez, Nasuinsari eman zitzaion Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak Noain-Eskirotz industrialdean atxikirik dituen higiezinaren egoera fisiko eta juridikoari buruzko txostena idazteko enkargua. Horretarako, 16.453,51 euroko aurrekontua onetsi zen, BEZa barne, aipatu kontusailaren kargura.

Gaur egun, Vianako industrialde batean egin beharreko jarduketa bat Nilsarekin ari da izapidetzen, 50.000 eurokoa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 3an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

